

2018ko AURREKONTU OROKORRA

BAO 7, 2018/01/10



EUSKARAREN ERAKUNDEA Leioako Udaleko Erakunde Autonomoa

UDALBATZAK LEHENDABIZIZ ONARTUA 2017/12/28

EUSKARAREN ERAKUNDEA

JATORRIA: 1988ko ekainean, Leioako Udalak EUSKARAREN ERAKUNDE autonomoa sortzea erabakitzen du, gaur egun, Mastitxu Udal Euskaltegiak eta Euskara Zerbitzuak osatzen dutena. Hori guztia Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 85. artikuluekin, eta aplikatu ahal zaion guztian, horrekin bat datozen apirilaren 18ko 781/86 Legegintzazko Errege Dekretuko artikuluekin ados.

HELBIDE SOZIALA Leioan dauka, Iparragirre 78ko udal eraikinean.

IZAERA: berezko izaera juridikoa dauka Erakundeak, baita gaitasun juridiko osoa ere bere eskumenen esparru barruan jarduteko. Bere Estatutuek eta esparrukoa legeriak arautzen dute funtzionamendua.

Bere **HELBURUA**, Leioan, euskara sustatu eta normalizatzea da.

Erakunde Autonomoaren gobernu eta administrazio **KONTSEILU ARTEZKARIARI** dagozkio.



Zer da Aurrekontua?




- Euskara Zerbitzuak eta Mastitxu Udal Euskaltegiak osatzen duten Euskararen Erakundeak, hurrengo ekitaldirako espero dituen baliabideak, diru-sarrerak, aztertzen dituen agiria da, eta bertan, zertan gastatuko diren ezartzen da.
- Aurrekontua onartzea Udalbatzaren eskumena da (Kontseilu Artezkariak onetsi ondoren), Udal Organo gorena, udal hauteskundeetan hautatutako zinegotzi guztiek osatzen dutena. Leioan, 21 dira.
- Urte natural bateko iraupena du hasiera baten, hau da, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra. Luzatu ahal da. 2018ko Aurrekontua, 2017ko abenduaren 28an, Udalbatzaren erabakiaren bidez onartu egin zen.

UDAL AURREKONTU BATERATUA

Udal Aurrekontu Bateratuak Udalaren aurrekontu zuzena eta bere mendeko erakundeena hartzen ditu barne (tokiko erakunde autonomoak, tokiko enpresak, erakunde publikoak, merkataritza-sozietate publikoak eta fundazioak), Udal partaidetza garrantzitsua denean.

2018ko Aurrekontuaren datuak

ERAKUNDEA	ERAKUNDEAREN AURREKONTUA GUZTIRA(€)	UDALAREN PARTAIDETZA ERAKUNDEAN
Leioako Udala	35.120.571,84	%100
Soinu Atadia	2.268.140,38	%100
Euskararen Erakundea	1.056.745,65	%100
UDAL AURREKONTUA (BATERATUA) (*)	36.638.273,02	



(*) Aurrekontu Bateratua kalkulatzeko barne transferentziak deskontatzen dira.

DIRU-SARREREN AURREKONTUA





DIRU-SARREREN Aurrekontua

Formalki, Aurrekontua kapitulutan banatzen da, eta horietako bakoitzak, gastu desberdina adierazten du, bere izaeraren arabera. Euskararen Erakundeak hiru kapitulu ditu:

3. KAPITULUA

Tasak eta beste diru-sarrera batzuk

68.762,31€

4. KAPITULUA

Ohiko Transferentziak

987.933,34€


5. KAPITULUA

Ondareko diru-sarrerak

50,00€

GUZTIRA: 1.056.745,65€

KAPITULUAK



■ 1.Kap. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk

■ 2.Kap. Ohiko transferentziak

DIRU-SARREREN kapituluaren azalpena



3. KAPITULUA: TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK 661.103,00€

Herritar edo enpresei udal zerbitzu desberdinak emateagatik, Erakunde Autonomoak batzen dituen diru-sarrerak. Zehazki, Leioan, 1982tik euskararen irakaskuntzarako dagoen zentroan, ikasleek ordaintzen dituzten matrikulazio-kuotengatik eskuratzen dira kapitulu honetako zenbatekoak.

4. KAPITULUA: OHIKO TRANSFERENTZIAK 987.933,34 €

Batez ere, Leioako Udalak eta HABEk egindako ekarpenak zentroko jarduera aurrera eramateko.

HABEren diru-laguntza	331.200,87€
Udal transferentzia	374.415,46€
Udal transferentzia euskara- zerbitzua	249.242,01€
Beste diru-laguntza: Euskara- zerbitzua	33.075,00€

5. KAPITULUA: ONDAREKO DIRU-SARRERAK 50,00€

Udalaren jabetzen errentetatik datozen diru-sarrerak: banku-gordailuak, kanonak...

GASTUEN AURREKONTUA




GASTUEN aurrekontua



Formalki, Aurrekontua kapitulutan banatzen da, eta horietako bakoitzak, gastu desberdina adierazten du, bere izaeraren arabera.

1. KAPITULUA	Langile gastuak	856.610,16€
2. KAPITULUA	Gastuak ohiko ondasun eta zerbitzuetan	149.563,51€
3. KAPITULUA	Finantza gastuak	6,00€
4. KAPITULUA	Ohiko transferentziak	44.350,00€
6. KAPITULUA	Inbertsio errealak	6.215,98€

GUZTIRA: 1.056.745,65€





GASTUEN kapituluaren azalpena

1. KAPITULUA: **LANGILE GASTUAK** 856.610,16€

Zentroko langileen ordainsariak eta pertsona horiekin lotutako beste gastu batzuk (Gizarte Segurantzaren kotizazioak...). Euskararen Erakundeak 17 langile ditu.

2. KAPITULUA: **GASTUAK OHIKO ONDASUN ETA ZERBITZUETAN** 149.563,51€

Ondasun kontsumigarri edo Erakunde Autonomoaren funtzionamendurako beharrezkoak diren zerbitzuetan egindako gastuak (energia, ura, ordezeko piezak, adituen zerbitzu profesionalak, azpikontratazioak...). Ondorengoak dira gastu adierazgarrienak:

Bulego materiala	5.675,00€
Energia-hornidura	7.600,00€
Gas-hornidura	9.261,63€
Publizitatea eta propaganda	22.953,97€
Garbiketa	37.960,12€
Programetarako kontratazioa	44.490,00€

GASTUEN kapituluaren azalpena



3. KAPITULUA: FINANTZA GASTUAK 6,00€

Bankuko gastuen ordainketa.

4. KAPITULUA: OHIKO TRANSFERENTZIAK 44.350,00€

Ikasleek matrikula ordaintzeko zentroak eskaintzen dituen bekak. Urteroko deialdi publikoa.

Euskara ikasteko laguntzak	22.000,0011€
Euskara sustatzeko diru-laguntzak	5.250,00€
Errotuluetarako diru-laguntzak	2.100,00€
Komunikabideetarako diru-laguntzak	15.000,00€

6. KAPITULUA: INBERTSIO ERREALAK 6.215,98€

Erakunde Autonomoak, batez ere, material inbentariagarria erosteko jartzen duen diru-kopurua.